

NAFARROAKO GOBERNUAK ETA EROSKIK INDARRAK BATU DITUZTE NAFARROAKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA ETA ETORKIZUNA BULTZATZEKO

- **Hitzarmenak dakarrenez, 2029ra bitartean, Nafarroako nekazaritzako elikagaiak sustatuko dira, eta sektorean berrikuntza eta iraunkortasuna bultzatu.**
- **EROSKI gaur egun Nafarroako 186 hornitzaile komertzialekin aritzen da. Horietatik %86 nekazaritzako elikagaien ekoizle txikiak dira, eta Nafarroako 3.300 produktu erreferentzia saltzen ditu bere dendetan.**
- **EROSKI Taldeko CEO Rosa Carabelek eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Jose Mari Aierdik hitzarmena izenpetu ondoren, elkarrizketa mahai bat egin dute, eta belaunaldi aldaketari, errentagarritasunari eta iraunkortasunari buruz aritu dira, horiek baitira Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektorearen erronka handiak.**

Iruñea, 2026ko ekainaren 16a.– Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta [EROSKI](#) gaur izenpetu dute lehendabizikoz lankidetzak hitzarmen bat Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektorean lehiakortasuna eta garapena sustatzeko. 2029ra arte egonen da indarrean, eta aitzinamendua ekarriko du tokiko aberastasunean elikagaien banaketaz arduratzen den kooperatibaren aldetik. Elkarlanaren bitartez, Nafarroako nekazaritzako elikagaien ekoizpena indartuko dute –gehienbat kalitate zigiluak eta jatorri izenak dituzten produktuena–, sektorearen berrikuntza eta iraunkortasuna sustatu eta ekoizleen eta enpresen hazkundean lagundu. Gaur egun, Nafarroako 186 hornitzaile komertzialekin aritzen da kooperatiba, eta 200 milioi eurotik gorako erosketa bolumena du horiekin.

Iruñean izenpetu dute hitzarmena, eta buru izan dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko sailburu Jose Mari Aierdi eta EROSKI Taldeko CEO Rosa Carabel. Halaber, hor izan dira Asier Guridi Eroskiren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertziala eta Natalia Bellostas INTIAko zuzendari gerentea. Sektoreko berrogeita hamar bat eragilerekin (tokiko hornitzaileak, sektoreko elkarteak eta erakundeetako ordezkariak) izandako topaketaren harira egin dute ekitaldia.

Rosa Carabel EROSKI Taldeko CEOak hauxe azpimarratu du: *"Hitzarmen honek erakusten du konpromisoa dugula EROSKIren baliabide guztiak jartzeko Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektorea haztearen, lehiakortasuna handitzearen eta iraunkortasuna sustatzearen mesedetan. Tokikoa bultzatuz, komunitatea eraikitzen dugu, eta gure ingurunean zuzenean eragiten dugu. Kooperatiba garen aldetik, gure konpromisoa da*

ekoizten dutenekin eta kontsumitzen dutenekin balio partekatua sorraraztea eta landa ingurunearen konexioa sendotzea”.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Jose Mari Aierdik, berriz, nekazaritzako elikagaien sektoreak Nafarroan duen izaera estrategikoa nabarmendu du: foru erkidegoaren BPGaren %6,5 da, lurraldean errotuak dauden 1.200 enpresa baino gehiago biltzen ditu eta 30.000 enplegu inguru sorrarazten ditu. **Aierdik** dioenez, *“elkarri gainjartzen joan diren askotariko krisiengatik Europako nekazaritzako elikagaien eredia une kritikoa izaten ari den honetan, gure produktuek ingurumenaren eta gizartearen arloan lehiatu behar dute, kalitatearen eta osasunaren arloan, zeren eta horrek bereizten gaitu eta horrek ematen digu nortasuna. Alde horretatik, funtsezkoa da itunak ehuntzea eta indartzea nekazaritzako elikagaien balio katea osatzen dugun katebegi guztien artean”.*

Hitzarmenaren bitartez, lankidetzaren esparru egonkor bat ezarriko dute Nafarroako nekazaritzako elikagaiak sustatzeko, berrikuntza eta eraldaketa digitala bultzatzeko, ekintzailatza mesedetzeko eta ekoizpen eta komertzializazio eredu iraunkoragoetarako jotzeko. Hala berean, Nafarroako produktuen presentzia EROSKIren saltokietan handitzeko ekintzak dakartza, bai eta kontsumitzaileentzat ikusgarriago jartzekoak ere, batik bat jatorria, trazabilitatea eta balio diferentziala ziurtatzen duten kalitate zigilu eta bereizgarriak dituztenena —hala nola Reyno Gourmet, ekoizpen integratu edo ekologikoa eta Nafarroako Elikagai Artisauak—.

Lankidetzaren harira, lagundu egingen zaie, halaber, nekazaritzako elikagaien ekoizleei eta enpresei buru egiten sektorearen erronkarik handienetako batzuei. Alde horretatik, kooperatibak lagun egiteko programa bat bultzatzen du 2022tik, ekoizle txikiei laguntzeko profesionalizatzen eta buru egiten merkatuko erronka gero eta zorrotzagoei. Gaur egun, tokiko berrogeita hamar ekoizle inguru ari dira dagoeneko programan. Denek ere eredu bat hedatzen laguntzen dute, elikagaien freskotasuna eta kalitatea ziurtatzen dituen, karbono aztarna gutxitzen duena garraioan egiten diren kilometroak murriztuta eta sektorea indartzen duena.

Hitzarmenak, era berean, balioko du elkarrekin indar handiagoz ari daitezen EROSKI eta Nafarroako nekazaritzako elikagaien ekosisteman giltzarri diren eragileak; horien artean, INTIA eta zentro teknologikoak. Hala, berrikuntzarekin, kalitatearekin eta elikagai segurtasunarekin ikustekoa duten proiektuak bultzatuko dituzte, eta jakintzaren transferentzia bizkortuko dute.

Nafarroarekin lehendik sendoturiko konpromisoa

Hitzarmena izenpetuta, jarraipena emanen zaio EROSKI eta Nafarroako elikagaien sektoreak lehendik sendotuta zeukaten harremanari. Gaur egun, Nafarroako 186 hornitzaile komertzialekin aritzen da kooperatiba, eta 200 milioi eurotik gorako erosketa bolumena du horiekin. Horietatik %86 nekazaritzako elikagaien ekoizle txikiak dira.

Horretaz gainera, kooperatibak, gaur egun, Nafarroako 3.367 produktu erreferentzia merkaturatzen ditu bere saltegietan. Horri esker, kontsumitzaileek eskura dituzte foru

komunitatean ekoitziriko eta eraturiko elikagaiak, eta handitzeko aukerak sortzen dira nekazaritzako elikagaien sektorearen balio kate osorako.

Joan deneko hamar urtean izan duen eboluzioak ere erakusten du EROSKIk nolako konpromisoa duen Nafarroan ekoizten diren nekazaritzako elikagaiekin. 2016an halako bi aldiz saldu ziren 2025ean tokikotzat jotzen diren produktuak Nafarroan. Hazkundera zinez handia izan da balio erantsiari eta kalitate bereziari loturiko kategorietan. Reyno Gourmet markak eta beste kalitate zigilu batzuek babesten dituzte produktuok, eta horien salmenta %93 handitu da. Kontserba begetalena, berriz, %114. Nabarmentzekoa, hala berean, behi haragiaren kategoriak, gaztakeriak eta esnekienak izaniko igoerak; hurrenez hurren, +%125, +%102 eta +%104. Datu horiek erakusten dute kooperatibak nolako konpromisoa duen tokiko produktuekin, bai eta Nafarroako kontsumitzaileek gero eta interes handiagoa dutela beren erkidegoan ekoizten diren produktuekin.

Belaunaldi berritzea, errentagarritasuna eta iraunkortasuna

Hitzarmena izenpetu ondotik, elkarrizketa mahaiarekin jarraitu du topaketak: "Relevo, rentabilidad y sostenibilidad: el triple reto del sector agroalimentario navarro". Bertan, Carabelez eta Aierdi kontseilariak gain, hitz egin dute Nagrifoodeko Berta Anaut presidentek, CNTAko Hector Barbarin zuzendari nagusiak eta AN Taldearen Haragi Saileko lokin Zuloaga zuzendariak.

Lehenik eta behin, **Aierdi** kontseilariak alderdi batzuk aipatu ditu hobetu litezkeenak belaunaldi berriaren mesedetan. *"Nafarroan nekazaritzako elikagaien sektorea ez dugu behar adina balioesten, nahiz eta kalitatezko enpleguak sortzen dituen. Herritarrei helarazi behar diegu nekazaritzako elikagaien 1.200 enpresa daudela Nafarroan. Izan ere, foru erkidegoak etorkizunean sendo iraungo badu, nekazaritzako elikagaien industriak hazi egin beharko du", esan du, eta segidan, honela gaineratu du: "Ezin dugu ito ekoizpen katearen atal bat. Funtsezkoa da guztiok konturatzea zein den norbere zeregina, eta aldi berean gainerakoen lana balioestea".*

Ondoren, hitza hartu du **Nagrifoodeko Berta Anaut presidentek**, eta azaldu du nola hobetu behar litzatekeen nekazaritzako elikagaien sektorea erakargarriagoa izan dadin gazteentzat eta emakueentzat. *"Ez ditugu konbentzituko kontu erromantikoekin; aldiz, erakutsi behar diegu lan arlo errentagarria dela eta familiarekin uztartzeko modukoa. Emakumea beti egon izan da landa jarduerari lotua, baina ez zaio behar adinako ikusgarritasunik eman eta ez zaio aukerarik eman ere zuzendaritza postuak erdiesteko. Gai izan behar dugu ikusarazteko sektore berritzailea eta teknologikoa dela eta etorkizuna duela", nabarmendu du **Anautek**. Halaber nabarmendu du zein garrantzitsua den "enpresa txikiei babes eta laguntza ematea, zeren eta kateak katebegirik ahulenetik puskatu ohi dira".*

Hector Barbarin CNTAko zuzendari nagusiak hartu hitza hurrena, eta aipatu du berrikuntza dela giltzarria belaunaldi berriak, errentagarritasuna eta iraunkortasuna bateratzeko. *"Kontsumitzailea birkonkistatu behar dugu, zeren eta familiek elikadurarako bereizten duten diru kopurua ez da iraganean bezain handia. Segur aski beste lehentasun batzuk daude funtsean. Bioteknologiak eta robotizazioak amu bezala funtziona lezaketek gizartea berriz*

erakartzeko", esan du. Horretaz gainera, **Barbarinek** azpimarratu du berrikuntza gauza dela kostuak apaltzeko eta balio erantsi handiagoa sorrarazteko. *"Sentsorikak eta datuen analisiak lagundu behar lukete gastuak urritzen. Iraunkortasuna eta errentagarritasuna eskutik doazela"*, horretan jarri behar dugu azpimarra.

Ondoren, **AN taldeko Haragi Saileko zuzendari Iokin Zuloagak** aletu ditu gazteek nolako beharrak dituzten ustiategi batean hasteko. *"Udalerrri batek lortzen badu bikote gazte batek landan lan egin nahi izatea, arintasun administratiboz lagundu behar zaio. Irango eta Ukrainako gatazkek lehengaien prezioak goratu dituzte, eta horrelakoetan sortzen dira zalantzak bide egokia hautatu ote duten"*, adierazi du. Alde horretatik, **Zuloagak** honela esan du: *"Iraunkortasuna ez bada errentagarri, ez da iraunkorra"*.

Bestalde, **Carabelek** erakutsi du zertan ikusten den EROSKI Taldea konprometituta dagoela tokian tokiko produktuarekin, eta ez errentagarritasunaren aldetik bakarrik, baizik eta baita Nafarroarako aberastasuna sortzearen aldetik ere. *"EROSKIren ustez, arduraz jokatzeko zerekin eta harreman egonkorrek eratzeko tokiko negozioentzat; gainera, bermeak eta konpromisoa ematen dizkiegu haien produktuak irteera izango dutela merkatuan"*. Etorkizunera begira, berriz, hauxe iragarri du: *"Lan egin behar dugu berezitasunean, gure langile taldeen prestakuntzan eta balio katearen efizientzian"*.

Ekitaldia amaitzeko, mugarri zerrenda bat bota dute datozen bost urteetarako; azken xedea da baieztatzea Nafarroan nekazaritzako elikagaien sektorea bide onetik doala eta aberastasuna, enplegua, enpresa ehuna eta aukerak sorrarazten jarraitzen duela bertakoontzat. Esate batera, emakumeak eta gazteak erakartzea aipatu da, araudia arintzea eta berrikuntza sendotzea balio erantsi modura, berebat Nafarroako produktuen ikusgarritasuna handitzea eta lankidetzaren publiko-pribatua bultzatzea ere.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna

Patricia Martín Sanchidrián

comunicacion@eroski.es

Nafarroako Gobernuako Komunikazio Zerbitzua

Komunikazio-arduraduna:

Itxaso Ibarra

itxaso.ibarra.garcia@navarra.es